

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Negozio-eredu jakin batek funtzionatzea ahalbidetzen duen bazkide sarea da funtsezko elkarteek osatzen dutena, gure kasuan, beste enpresekin dugun aliantza izango litzateke. Hiru arrazoi nagusi erabili ohi dira aliantza aurrera eramateko. **Negozio eredia optimizatu** nahiko genuke, hau da gure eskaintza geroz eta zabalagoa izango litzateke, beste enpresekin hitz eginez, gure estrategiak, eskaintzak, estruktura... landuko genituzke. Lazkaon ez dago kirol arropa dendarik, eta gure iritziz ez genuke publizitate handirik beharko jendea gure dendara gerturatzeko. Honek bi ondorio izan ditzake, arrakasta ez edukitzea eta gure arropa beste leku batzuetara ez iristea, edo jendeari gure arropa gustatzea eta horrela ospea handituz, beste hainbat lekuetatik eskariak jasotzea. Horretarako ere prestatuta egongo ginateke, internet bidez ere arropa eskuratzeko aukera egongo baita, eta horri eutsiz, etxez etxeko entrega ere egingo dugu.

Beste enpresekin aliantza sortzearen beste puntu positibo bat **arriskuak murriztea** da. Gure markak arrakasta handirik edukitzen ez badu, beste hainbat markatako arropa ere salgai edukiko genuke, galerarik ez edukitzeko. Honen ondorioetako bat **baliabideak eskuratzea** da, hau da, garapenerako aukera gehiago edukitzea, herramienta berriak etorkizunari aurre egiteko. Horrez gain, gure enpresa barnean eta gu eta bezeroen arteko harremanean sortuko liratekeen enkargu ezberdinak betetzeko, garraioan espezializatutako enpresa bat kontratatuko genuke.